

Arlanpeko Dama, Paleolitoko artearen adibide bakana, argitara

Arlanpeko kobazuloan (Lemoa, Bizkaia) emakume-itxurako grabatuak dituen harri handi bat aurkitu dutela jakinarazi dute. Grabatuak duela 17.500 urte ingurukoak dira, eta haietako bat osorik dago. Aurkikuntza aparta da, orain arte ez baitute horrelakorik topatu penintsulan. Hala, era horretako artearen banaketa geografikoa eta kronologia osatzeko gakotzat jo dute. Joseba Rios Garaizarrek zuzendu du ikerketa-taldea, eta [Oxford Journal of Archaeology aldizkarian eman dute aurkikuntzaren berri](#).

Grabatuak dituen kare-harrizko blokea 2011n aurkitu zuten. Riosen hitzetan, “izugarritzko emozioa” sentitu zuten, eta Arlanpeko Dama deitu zioten, Anbotoko Damari keinu eginez: “hura bezala, milaka urtetan egon baita kobazuloan”.

Zailena “harri koxkor hura” haitzulotik jaistea izan omen zen, 70 kilo inguru baititu. Emakume-itxurako grabatu eskematikoak arrokaren bi aldetan agertzen dira. Irudietako bitan lehen marrak bakarrik ikusten badira ere, beste bat oso-osorik dago. Enborra, besoak, hankak eta burua ageri ditu, eta estiloak bat egiten du Europaren erdialdean eta Frantziaren aurkitutako grabatuekin. Magdaleniar garaikoak dira, eta Gönnersdorf-Lalinde izeneko tipokoak. Horrek batasun kulturala adieraziko luke.

Arlanpeko irudiek, gainera, badute berezitasun bat: Gönnersdorf-Lalinde tipoko irudi zaharrenetakoak dira; hain zuzen, Gönnersdorf-ekoak baino 1.000 urte inguru zaharragoak dira. Ikertzaileen arabera, horrek, batetik, grabatu-mota hori uste zutena baino antzinakoagoa dela erakusten du; eta, bestetik, Europaren hego-mendebaldean sortu zela eta, gero, azken glaziazioaren amaieran populazioak iparraldera migratzean, hedatu zela dioen hipotesia indartzen du.

Bestalde, grabatuek izan zezaketen funtzioa edo esanahia ere aipatzen dute. Haien esanean, ustez ehizaleku zen toki batean arroka grabatu bat egotea ez da azaltzen erraza, baina baliteke espazio erritua bat sortu nahi izatearekin lotuta egotea. Hain justu, azalpen bera proposatzen dute Kantauriko beste leku batzuetarako ere.

Riosekin batera, Bilboko Arkeologia Museoko, Tolosako Unibertsitateko eta Ikerbasqueko ikertzaileak aritu dira lanean; tartean dira, adibidez, Diego Garate eta Asier Gomez-Olivencia. Giza Eboluzioaren Espainiako Ikerketa Zentroak zuzendu du ikerketa (CENIEH), eta Bizkaiko Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Barandiaran Fundazioaren laguntza jaso du. ●

Txernobyl inguruan animalia basatiak ugaritzen ari direla frogatu dute

Txernobylgo zentral nuklearraren hondamendia gertatu zenetik ia 30 urte bete direnean, erradioaktibitateak kutsatutako eremuan ugaztun handiak ugaritzen ari direla frogatu du epe luzeko ikerketa batek. Are gehiago: espezieetako batzuk hondamendiaren aurretik baino ugariagoak dira gaur egun. Portsmouth Unibertsitateko Jim Smith ikertzaileak gidatu du lana, eta [Current Biology aldizkarian argitaratu du artikulua](#).

Istripu nuklearrak kutsatutako eremua erradioaktibitatearen ondorioak ikertzeko laborategi bihurtu da. Hala, espezie askotan erradioaktibitateak duen eragin kaltegarria erakutsi dute hainbat ikerketek, besteak beste, hegaztietan, arrainetan, intsektuetan eta araknidoetan.

Orain argitaratutako ikerketan, ordea, Bielorrusiako kutsatutako eremuan bizi diren ugaztun handiei erreparatu diete. Animalia-kopurua kalkulatzeko, bi metodo erabili dituzte: batetik, 1987tik 1996ra, neguan helikopteroz egindako zenbaketa zuzenak; eta, bestetik, 2008tik 2010era, animaliek elurretan utzitako aztarnejarrarrituz egindako neurketak. Gero, Bielorrusiako kutsatu gabeko beste eremu batzuetan antzeko metodoekin lortutako emaitzekin alderatu dituzte kopuruak.

Horrela, egiaztatu dute, kutsatutako eremuan, altzeen, orein arrunten eta basurdeen populazioak nabarmen handitu direla 1987tik. Oreinen kopurua, adibidez, 10 aldiz handitu da 1996tik. Otsoen dentsitatea, berriz, alderatutako eremuetan baino 7 aldiz handiagoa dela ikusi dute. Ikertzaileen arabera, ehiza debekatuta egoteak azaltzen du alde hori.

Horrez gain, animalien dentsitatea lurzoruaren erradioaktibitate-mailarekin erlazionatuta ote dagoen begiratu dute ikertzaileek, eta ezetz ondorioztatu dute. Haien esanean, emaitzek iradokitzen dute giza jarduerak (nekazaritzak, ehizak, basozaintzak...) ugaztun handiei kalte handiagoa egiten zela erradioaktibitate kronikoak baino. ●



Irudietako baten argazkia eta kopia. ARG.: DIEGO GARATE.

